



# Errespetatzen ditugu haurren eskubideak?

María Olga Macías Muñoz

**Ikaslearen koaderno**

IKD baliabideak 6 (2013)

## AURKIBIDEA

1) Sarrera.....	3
2) Aurretiko gogoetak ikaslearentzat.....	3
3) Jarduerak.....	6
1. Jarduera.....	6
1.1. Ataza.....	7
1.2. Ataza.....	13
1.3. Ataza.....	16
1.4. Ataza.....	18
2. Jarduera.....	20
2.1. Ataza.....	22
2.2. Ataza.....	24
2.3. Ataza.....	26
2.4. Ataza.....	29
3. Jarduera.....	31
4. Jarduera.....	32
4.1. Ataza.....	33
4.2. Ataza.....	35
5. Jarduera.....	37
5.1. Ataza.....	38
5.2. Ataza.....	40
6. Jarduera.....	41
4) Jardueren eta atazen laburpena.....	43
5) Jardueren kronograma.....	54
6) Lanaren gutxi gorabeherako kronograma.....	55
7) Ebaluazioa.....	57
8) Bibliografia.....	69

## 1) SARRERA

Koaderno honetan jaso da ikasleek zer lan egin behar duten Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I irakasgaiko praktketan. Lan hau AOI metodologian oinarrituta dago, arazoetan oinarritutako ikaskuntzan. Koaderno honetan ikasleak arazo egituratzailearen planteamendua topatuko du eta galdera eragile nagusiak, eta baita lan honi ekiteko kontuan izan behar dituzuen aurretiko gogoeta batzuk ere. Jarraian, jarduerak eta hauetako bakoitzean landu behar dituzuen atazak agertuko dira eta, azkenik, jardueren kronograma. Lanerako materiala bai Moodle bidez, eta bai Praktika koadernoan helaraziko zaizue.

## 2) AURRETIKO GOGOETAK IKASLEARENTZAT

Lan honetako jarduerak lantzen hasi aurretik, gogoeta batzuk egingo ditugu aurretik ikasleek egin beharreko zereginen inguruan. Gogoeta hauek atal hauei buruzkoak dira: arestian aipatutako ikaskuntza-helburuak lortzeko jarraitu beharreko pausoak; planteatutako arazoa lantzeko beharrezko informazioa bilatzeko jarraibideak; arazoa didaktikoki ebazteko egin behar duten erantzukizun- eta ekintza-banaketa; ebaluazio-irizpideak; eta, azkenik, garatu beharko dituzten azpi-arazoak eta horien arabera jarduerak:

### 2.1.- Ikasleek goian azaldutako ikaskuntza-helburuak lortzeko jarraitu beharreko pausoak:

- Arazoa definitu eta termino eta kontzeptuak argitu.
- Arazoaren zatiak identifikatu: zer gertatu da, nortzuk daude inplikaturak, nolakoa da eragindako pertsonen inplikazio-maila.
- Aktore nagusiak identifikatu: segregazioaren subjektua, zein elementu dira segregazioaren alde egiten dutenak eta zein ez (ikasleak, irakasleak, GE, hezkuntza- eta gobernu-erakundeak).
- Arazoa denboraren ikuspegitik aztertu (ekintzen gertaera, eta alde edo aurka hartutako erabakiak).
- Aktore desberdinek arazoaren aurrean dituzten erreakzioak aztertu. Nola egiten zaio aurre eta/edo nola saihesten da.
- Arazoko datuak ordenatu, gidoi orientagarri honen arabera:
  - Aurrekariak:
    1. Gertaeren historia (Gertaerak, denborazko jarraipena).
    2. Jokabidearen mapa: eragindako arloak (familia, gelako taldea, irakasleak, GE, erakundeak, ingurune sozio-kulturala).

### 3. Segregazio erlijiosoa ekarri duten gakoak.

- Inplikaturako subjektuak: historia familiarra, testuinguru soziokulturala, nortasuna, subjektuaren edo esku-hartze taldearen baloreak (elkartek, irakasleak, erakundeak...)
- Erantzun-mailak: ezagutzazkoak, afektibo-emozionalak, moralak, sozialak.
- Ondorioak.

## **2.2.- Informazio-bilaketa:**

Irakasgaiako gaietan agertzen den oinarrizko bibliografia eta internetgrafia erabiliko da. Beste baliabide batzuk: liburutegiak, haurtzaroa eta giza-eskubideei buruzko GKE, landuko den gaiaren inguruko ikerkuntza zientifikoak, gaiarekin zerikusia duten prentsako albisteak, erlijio islamikoa praktikatzen duten pertsonen elkarrizketak, hezitzaileei...

## **2.3.- Erantzukizunen banaketa eta arazoaren irtenbide didaktikoan egin beharreko ekintzak:**

- Taldekideen erantzukizuna atazen aurrean, taldeko bertako kideek egindako talde osoaren ebaluazioan egiaztatuko da.
- Arazoaren *analisi funtzionala* egingo da honako alderdi hauek adieraziz: arazoaren formulazioa, lan-hipotesiaren planteamendua; jokabide giltzarriak eta aldagai aipagarriak, esku-hartzearen diseinua (esku-hartzearen helburuak eta estrategiak); emaitzak; jarraipena.
- Arazoa konpontzeko ekintzak.

## **2.4.- Jarduerak:**

Sei dira ikasleak landu beharko dituen jarduerak. Jarduera bakoitzaren koadroan adierazi dira iraupena, landuko diren gaitasunak, lortu nahi diren helburuak eta entregagaiak. Zenbait jarduera ataza desberdinetan banatuta daude. Bai jardueretan eta bai atazetan, bakoitzaren helburuak adieraziko dira eta jarraitu beharreko lan-prozesua ere bai. Ikasleek jarduera bakoitzerako erabiliko duten materiala eta bakoitzean jardun beharreko denbora ere agertuko da.

## 1. Koadroa. Ikaslearentzako jarduerak (enuntziatua)

IKASLEARENTZAKO JARDUERAK (ENUNTZIATUA)		
<b>JARDUERAK</b>	<b>GALDERA ERAGILEAK</b>	<b>IKASLEEN DEDIKAZIOA</b>
<b>1 JARDUERA</b>	Badakigu sortzen zaizkigun arazoaren aurrean hausnartzen? Ezagutzen dugu gure ingurune soziala? Gai gara identifikatzeko bizi garen gizartearen eraikuntzan elkarrengaitan duten elementu desberdinak?	4 ordu presentziakoak 2:30 ordu ez-presentziakoak
<b>2 JARDUERA</b>	Ezagutzen ditugu haurren eskubideak? Errespetatzen ditugu haurren eskubideak? Nola inplikatzen gara hauren defentsan?	10 ordu presentziakoak 0:30 ordu ez-presentziakoak
<b>3 JARDUERA</b>	Nola sortu da arazoa? Zein neurri hartu dira alde edo aurka?	2 ordu presentziakoak 0:30 ordu ez-presentziakoak
<b>4 JARDUERA</b>	Zein dira arazoarekiko erreakzioak? Zein irtenbide planteatzen dira?	6 ordu presentziakoak 0:30 ordu ez-presentziakoak
<b>5 JARDUERA</b>	Zein erantzun eman arazoari?	4 ordu presentziakoak 3:30 ordu ez-presentziakoak
<b>6 JARDUERA</b>	Zer ikasi dugu?	5 ordu presentziakoak 1:30 ordu ez-presentziakoak

### 3) JARDUERAK

#### 1 JARDUERA

<b>1 JARDUERA: Badakigu sortzen zaizkigun arazoan aurrean hausnartzen? Ezagutzen dugu gure ingurune soziala? Gai gara identifikatzeko bizi garen gizartearen eraikuntzan elkarreragiten duten elementu desberdinak?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	4 ordu presentziazkoak / 2:30 ordu ez-presentziazkoak
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona).
<b>ATAZAK:</b>	<p>1.1. ATAZA. AOIren aurkezpena (30 minutu presentziazkoak).</p> <p>1.2. ATAZA. Arazoaren aurkezpena (30 minutu).</p> <p>1.3. ATAZA. Planteatutako arazoa definitu eta sorrarazi duten kausak ezarri (1 ordu presentziazkoa eta 2 ordu ez-presentziazkoak).</p> <p>1.4. ATAZA. Ezagutzen dugu gure ingurunea? (2 ordu presentziazkoak eta 2 ordu ez-presentziazkoak).</p> <p>ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak).</p>
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (1.1., 1.2. eta 1.3 Atazak)</p> <p>Iturri bibliografikoak, internet, ahozko iturriak. (1.4. Ataza)</p>
<b>ENTREGAGAIK</b>	<p>Planteatutako arazoaren definizioa eta sorrarazi duten kausen hipotesiak (paper-zorroa) (1.3. Ataza).</p> <p>Ingurune sozialaren deskribapena (paper-zorroa) (1.4. Ataza)</p>



[http://hayotromundopordescubrir.blogspot.com.es/2008\\_05\\_01\\_archive.html](http://hayotromundopordescubrir.blogspot.com.es/2008_05_01_archive.html)

➤ **1.1. ATAZA:**

1.1. ATAZA: AOIren aurkezpena	
IRAUPENA	30 minutu presentziazkoak
MODALITATEA	Magistrala
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa
ENTREGAGAIK	Ez

✓ **Lanaren helburua:**

Jarduera honetan ikasleei gogoraraziko zaie zertan datzan elkarlana arazo-ebazpeneko metodologia (AOI) erabiltzean, izan ere, puntu hau luze eta zabal landu baita irakasgaia aurkezteko egin den ordu eta erdiko eskola magistralean. Eskola honetan irakasgaiaren xehetasunak azaldu dira eskolen antolaketari dagokionez, ordu eta erdiko eskola magistralak, eta baita lan-antolaketari eta arazoan ebazpenerako metodologiari dagokionez ere.

✓ **Lan-prozesua:**

Jarduera honetan, irakasleak ikasleari esplikatu dio zer den AOI metodologia, zertan datzan taldeko elkarlana, zer motatako ebaluazioa izango den eta ikasle bakoitzak elkarrizketarako egin beharko duen Egunkaria.

**1.- Zer da AOI metodologia?**

AOI metodologia inplementatuko den irakasgaiak, Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I, 6 kreditu ECTS ditu. Gure asmoa da horietatik 3,1 kreditu, 31 ordu, irakasgai honetako praktika guztiei dagozkienak, aipatutako metodologiaz lantzea. Praktikak 25-30 pertsonako taldeetan egingo dira eta presentziazko ordutzat hartuko dira.

AOI metodologia inplementatzean irakasgaiko praktiketan, elkarlaneko ikaskuntza landuko dugu. Ikaskuntza mota hau estrategia didaktiko bat da, eta gela talde txikietan antolatzen du (kasu honetan 4 kidekoa bakoitza); bertan, ikasleek modu koordinatuan lan egiten dute ataza akademikoak ebazteko eta euren ikaskuntza garatzeko. Egoera honetan parte-hartzaileen helburuak lotuta daude, "bakoitzak bere helburuak besteek eurenak lortuz gero soilik lortu ahal izango dituelarik". Gainera, gogoan izan behar da elkarlaneko ikaskuntzak bereziki hauetatik ateratzen duela onura: edozein taldetan dauden pertsonarteko harremanen potentzial hezigarria; sozializazio eta integrazio baloreak, oso hezigarriak; eta gatazka sozio-kognitiboa

ikaskuntzaren elementu gisa. Ondorio gisa, esan dezakegu AOI metodologia oinarritzen den elkarlaneko ikaskuntzak ikasle guztien inplikazioa eskatzen duela; ikaslea-taldea elkarrekintza (indartsua) ikaslea-irakaslearen (ahula) orde; eskola-uzteen murrizketa; ikaslearen asebetetze handiagoa eta irakasgaiarekiko jarrera positiboagoa; ikaskuntza-estilo desberdinen egokitzapena; emaitza akademiko hobekak; lan-mundurako prestaketa; eta, azkenik, irakasleei heziketa-helburuak hobetzen laguntzeaz gain (ikaskuntza-prozesuaren behaketa), irakasleek ikasleek duten pertzepzioa ere hobetu egiten da.

Aldi berean, Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I irakasgaiaren gaitasunen barnean, ikasleek planteatutako arazo egituratzailearen bidez landu behar dituztenak, balore sozial batzuk ikastea dago, aurrerago euren lehen hezkuntzako ikasleei igorri beharko dizkietenak. Ikaskuntzaren hurbilketa eraikitzaile batetik, AOIn oinarritutako metodologiak irakasle-ikasketetako ikasleari lagundu egiten dio berari dagokion kulturaren eduki edo jakintzen (ber)eraikuntza esanguratsua egiten. Ikasle hauei planteatutako zaien arazo egituratzailea osatzen duten jarduera desberdinen bidez, esku-hartze hezigarriak estimulatu egiten ditu eduki adierazgarri eta testuinguruan kokatuei buruz pentsatzera eta jardutera. Planteamendu honi dagokionez, irakasleak gogoan izan behar du ikaskuntza esanguratsua hainbat baldintza asebeteta soilik gertatzen dela: ikaslea gai izatea ez-arbitrarioki eta substantzialki erlazionatzeko informazio berria ingurune sozialaren bidez dituen aurretiko ezagutza eta esperientziekin; eta ikaskuntza-materialek edo -edukiek esanahi potentziala edo logikoa izatea.

Kontuan izan behar da praktketan egingo diren jarduerak, aurrez, eskola magistraletan testuinguruan kokatuta ikusiko direla. Eskola hauek 2,4 kreditu dira, presentziazko 24 orduren pareko. Ikasle bakoitzak astean 2 orduko praktika-jarduera egingo du. Landuko den arazo egituratzaileak irakasgai honetako gaitasun guztiak bilduko ditu; beraz, ezin da integratu gai espezifikoko baten barnean.

Eskola magistraletan emango diren azalpenek erreferente praktiko bat behar dute, ikasleei irakasgaiko edukiak barnetatzen lagunduko diena. Arazoen ebazpenak ekintza-esparru bat eskaintzen du eta, honen bidez, ikasleek sendotu egin ditzakete ezagutza kontzeptual horiek eta gizarte zientziekin zerikusia duten lan-prozedura batzuk ikasi; eta, azkenik, kontzeptu eta prozedura hauek unibertsitateaz kanpo eguneroko elkarbizitzan baliagarri izan dakizkiekeen jarrera batzuk garatzeko aukera eman diezaiakete.

Euskal Herriko egungo errealitateari lotutako arazo egituratzaile baten bidez eta, zehazki, bere hezkuntza alderdiarekin, Irakasle-ikasketetako ikasleak etorkizunean irakasle gisa garatuko duen postuan jar daitezke. Galderak planteatutako zaizkio eta erantzuna informazioa bilatuz, hipotesiak eginez eta emaitzak planteatuz eman beharko die.



## 2.- Nola antolatuko dira lan-taldeak?

Taldeko elkarlana da AOI metodologiaren oinarria. Horregatik da hain garrantzitsua taldeen antolaketari hasieratik ekitea, kide guztiak lanerako egoerarik onenean egon daitezen. Koaderno honetan dagokigun inplementazioan, taldeak 4 pertsonak osatuko dituzte. Printzipioz, irakasleak askatasuna emango die ikasleei egoki iruditzen zaien moduan egiteko taldeak. Irizpide desberdinak sortuz gero banaketari buruz ikasleen artean, irakasleak erabakiko du taldearen antolaketa, egokiena iruditzen zaion irizpidea erabilia, esate baterako, zerrendako ordenari jarraitzea edo ausazko beste irizpideren bat. Taldeak egonkorrak izango dira AOIren inplementazio osorako. Taldekideen artean desadostasunak sortuz gero, irakasleak irtenbiderik egokiena bilatuko du.

Behin osatuta, taldeak bai helburu pertsonalak eta bai taldearenak ezarriko ditu. Honen arrazoia zera da: batetik, helburu hauek oso garrantzitsuak direla taldeari indarrak kontzentrarazten dizkiolako eta, bestetik, motibazio-iturri ona direlako. Kide bakoitzak taldean toki bat izatea eragiten dute, eta taldeak kideen beharrak asebeten dituzan laguntzen dute. Taldea eraginkortasunez funtzionatzen ari dela egiaztatzen ere laguntzen dute.

Talde-lana sustatzeko tresna on bat zera da, taldekide bakoitzak ikaskuntza-kontratu bat sinatzea taldean eta betetzeko hitza ematea. Segidan, taldeko ikaskuntza-kontratu hori aurkeztuko dugu, taldekide bakoitzak sinatuko duelarik, baina salbuespen batekin: talde bakoitzeko partaideak izango dira bete behar dituzten oinarrizko arauak ezarriko dituztenak eta baita hauek ez betetzearen ondorioak ere. Kurtsibaz adierazi dira arau eta zigor horien adibide batzuk.

### Taldeko ikaskuntza-kontratua

Bigarren lauhileko honetan talde batean hartuko dut parte Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I irakasgaiko praktiketarako.

Ikaskuntza-jardueretan taldean eraginkortasunez parte hartzeko konpromisoa hartu dut eta ahaleginduko naiz, nola edo hala, honakoa egiten: *Ikasleek oinarrizko arau batzuk betetzeko adostasuna agertuko dute, adibidez:*

- ...
- ...
- ...
- ...

Aurreko arauak betetzen ez baditut, honakoa egingo dugu konpentsatzeko: *Ikasleek zenbait ideia eta zigor aipatuko dituzte, adibidez:*

- ...
- ...
- ...
- ...

Sinadura:..... Data:.....

Ikasleei fitxa hau betetzen utziko zaie eta gero irakasleak gelako pantailan azalduko du eredia adibide eta guzti, ikasleek ideia berriak hartu eta kontratua formalizatu ahal dezaten. Behin sinatuta, kontratu hau irakasleari emango zaio taldearen izena eta taldekideen datuak jasotzen dituen fitxa batekin batera: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta argazki bat.

### 3.- Elkarrizketarako Egunkaria

Taldeko elkarlanaz gain, ikasle bakoitzak **Elkarrizketarako Egunkari bat** egin beharko du. Bertan, egin dituzten jardueren inguruko hausnarketak idatziko ditu. Jarduera hau ikasleak honako galdera honi erantzun diezaion pentsatua dago: **Badakigu sortzen zaizkigun arazoan aurrean hausnartzen?**

Ikasle bakoitzak ikaskide batekin trukatu du egunkaria. Hark irakurri eta erantzun egingo die oharrei iruzkin eta galderekin. Jarduera mota hau, elkarrizketarako Egunkaria, bitarteko formal bat da ikasleek beren pentsamenduak idatziz jasotzeko. Egunkari hauek bereziki eragingarriak izan daitezke egileek badakitenean beste pertsona batek, gai hau interesatzen zaionak, irakurri eta bere oharrei erantzun

egingo diela. Egunkari hau irakasgaiko azken paper-zorroan sartuko da. Prozedura honako hau da:

1.- Ikasle bakoitzak ez-presentziazko ordu erdi bat eskainiko dio jarduera amaitzean. Guztira, ikasle bakoitzak ez-presentziazko hiru ordu sartuko ditu **elkarrizketarako Egunkaria** egiten.

2.- Lan-jarduera bakoitzeko, ikasleak Word dokumentu bat irekiko du eta bi gelaxkako taula egingo du, bat eskuinean eta bestea ezkerrean. Egileak ezkerrean idatziko du eta irakurleak eskuinean.

3.- Egileak landu berri duten jarduerarekin erlazionatutako iruzkin eta galderak idatziko ditu, eta data eta sinadura jarriko dio.

4.- Egileak irakurleari bidaliko dio dokumentua, honek oharrak irakurri eta erantzun egingo du iruzkin, iradokizun, erantzun, galdera, eta abarrekin, data eta sinadura jarrita.

5.- Egileak taldearen azken txostenean jarriko ditu fitxa hauek eta irakasleari entregatuko zaio ebaluatzeko.

**Fitxa eredu elkarrizketarako Egunkarirako**

<b>JARDUERA ZK.....</b>	
<b>EGILEA:</b>	<b>IRAKURLEA:</b>
Idatzi landu berri duzen jarduerarekin zerikusia duten iruzkin eta galderak:	Irakurri ezkerreko oharrak eta erantzun iruzkin, iradokizun, erantzun, galdera, eta abarrekin:
Data:.....	Data:.....
Sinadura:..... .....	Sinadura:..... .....

✓ **Entregagaia:**

Ikasleak ez dauka lanik egin beharrik jarduera honi buruz.

➤ **1.2. ATAZA:**

1.2. ATAZA: Arazoaren aurkezpena	
IRAUPENA	30 minutu presentziazkoak
MODALITATEA	Magistrala
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa
ENTREGAGAIK	Ez

✓ **Lanaren helburua:**

Jarduera honen bidez esplikatuko da zertan datzan ikasleek landuko duten arazoa.

✓ **Lan-prozesua:**

Segidan, lehendabizi, arazo egituratzailea eta bere galdera eragile nagusiak planteatuko dira eta, ondoren, ikasleek zein ataza egin behar duten definituko da.

**Arazo egituratzailearen planteamendua**

**Arazoaren Izenburua: Errespetatzen ditugu haurren eskubideak?**

**Galdera eragileak:**

- Ezagutzen dituzu haurren eskubideak?
- Nola inplikatzin gara beren defentsan?
- Errespetatzen ditugu haurren eskubideak?
- Zergatik ez dira betetzen?
- Zein neurri har ditzakegu bete daitezen?
- Nola erreazionatzin dugu betetzen ez direnean?
- Nola erantzun arazo honi?

**Arazoaren planteamendua:**

Yasminak 6 urte ditu, Bilboko Villar Palasi Ikastetxe Publikoan Lehen Hezkuntzako lehen mailako ikaslea da. Bere gurasoak etorkinak dira, marokoar jatorrikoak, eta udaro jaioterrira joaten dira oporretan. Ikasturte honen

hasieratik, Yasmina txadorrarekin joaten da eskolara, aurpegiaren parte bat eta ilea estaltzen dizkion oihala. Tradizioaren arabera, emakume musulmanek jantzi egin behar dute pubertarotik aurrera. Gelan zenbait arazo sortu dira ikaskide batzuen aldetik, txadorra integrismo islamiarrarekin identifikatzen baitute. Guraso Elkarteko ordezkariak zuzendarirengana jo dute zuzendaritzak neurriak har ditzala eskatzera. Haien ustez, ikastetxe publiko batean ez dira onartu behar inongo erlijioaren kanpoko erakustaldiak eta, are gutxiago, emakumearen izaera iraintzen duen praktika izanik, askatasun pertsonala murrizten dion jantzia erabiltzera behartuz. Irakasleen klaustroak ere erabaki bat hartzeko eskatu dio zuzendaritzari, uste baitute 6 urteko haur batek txadorra erabiltzeak haurren berdintasun-eskubideak urratzen dituela hezkuntzaren eta integrazio sozialaren aurrean.



<http://castellano2lengua.blogspot.com.es/2010/05/hiyab-chador-burka.html>

Egoera honi erantzun nahian, ikastetxeko zuzendaritza neskaren gurasoekin jarri da harremanetan. Hauek diote haurrak txadorra nahi duelako jantzen duela, eta ez gurasoek inposatuta, gurasoen esanetan, neskatoa "oso erlijiosoak baita". Gurasoek aktiboki hartzen dute parte mezkita eta eskola koranikoa eraikitzea helburu duen plataforma islamiar batean, eskola kokatuta dagoen auzoan, biztanleria islamikoa geroz eta sendago dagoen auzoan.

Zuzendaritzak dagokion hezkuntzako agintariarengana eta Arartekoarengana ere jo zuen. Hezkuntza ikuspegitik, ez dago arau edo legerik ikasle batek, duen adina duela, gelan txadorra erabiltzea zigortzeko aukera ematen duenik. Bere aldetik, Arartekoak uste du neskatoari txadorra jantzita joaten uzteak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko bigarren artikulua urratzen duela.

Ikasleek jarduera desberdinak garatu beharko dituzte, zentroak jarraitu beharreko jarrera zein den justifikatuko duen txosten bat lantzerako zuzenduak. Galdera eragile bidez, ikasleak gaiaren alderdi desberdinak lantzen joango dira, arestian aipatutako txostenean bateratzeko.

✓ **Entregagaia:**

Ikasleak ez dauka lanik egin beharrik jarduera honi buruz.

➤ **1.3.ATAZA:**

<b>1.3. ATAZA.: Planteatutako arazoa definitu eta sorrarazi duten kausen hipotesiak ezarri</b>	
IRAUPENA	1 ordu presentziazkoa eta 2 ordu ez-presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa
ENTREGAGAIK	Planteatutako arazoaren definizioa eta sorrarazi duten kausen hipotesiak (paper-zorroa)

✓ **Lanaren helburua:**

Planteatutako arazoa definitu, arazo honetan agertzen diren terminoak eta kontzeptuak argitu, eta sorrarazi duten kausen hipotesiak ezarri.

✓ **Lan-prozesua:**

Lan hau egiteko, ikasleak arazo egituratzailearen planteamendua irakurriko du, eta kontuan izango ditu 1.3. atazan egindako lanaren emaitzak. Lan honetarako, taldea bi bikotetan banatuko da. Bikote bakoitzak arazoan agertutako termino eta kontzeptuak definitu eta argituko ditu. Amaitutakoan, bi bikoteen azalpen komuna egingo da landutako puntuez, idatzi egingo dute eta, ondoren, taldekide guztiek eztabaidatuko dituzte arazoa sorrarazi duten kausen hipotesiak. Eztabaida honen emaitza idatzi egingo da.



[http://asociacionmundounico.blogspot.com.es/2011\\_02\\_01\\_archive.html](http://asociacionmundounico.blogspot.com.es/2011_02_01_archive.html)



✓ **Entregagaia:**

Irakasleari idatziz entregatuko zaizkio, batetik, arazoan agertzen diren eta taldean adostu diren termino eta kontzeptuak eta, bestetik, sorrarazi duten kausen hipotesiak (paper-zorroa).

➤ **1.4.ATAZA:**

1.5. ATAZA: Ezagutzen dugu gure ingurune soziala?	
IRAUPENA	2 ordu presentziazkoak eta 2 ordu ez-presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana
BALIABIDEAK	Iturri bibliografikoak, internet, ahozko iturriak
ENTREGAGAIK	Ingurune sozialaren deskribapena (paper-zorroa)

✓ **Lanaren helburua:**

Arazo egituratzailea kokatzen den ikastetxearen ingurune soziala ezagutu (auzoa, hiria)

✓ **Lan-prozesua:**

Lan honetarako, ikasleak informazio-iturri desberdinak erabiliko ditu: liburutegia, internet, ahozko iturriak...

Landu beharreko puntuak:

1. Antolaketa soziala.
2. Antolaketa politikoa.
3. Antolaketa ekonomikoa.
4. Erakunde kulturalak eta erlijiosoak.



[http://www.guggenheim-bilbao.es/secciones/el\\_museo/el\\_edificio.php](http://www.guggenheim-bilbao.es/secciones/el_museo/el_edificio.php)

Lan hau egiteko, *Puzzlearen Teknika* deritzona erabiliko da. Honetan datza: ikasle bakoitzak bere aldetik landuko du gaiaren zati bat, lagunei aurkeztuko die eta, ondoren, kide guztien artean lanaren azken ondorioetara iritsiko dira.

Beraz, lan-prozesua honakoa da: taldekide bakoitzak puntu hauetako bat landuko du eta jasotako informazioa bi foliotan jasoko du. Gero, kide bakoitzak gainerakoei azalduko die garatutako puntua eta taldekide guztien artean egingo dituzte lanaren azken ondorioak. Lan honek gehienez 10 orri izango ditu.

✓ **Entregagaia:**

Ingurune sozialaren deskribapena (paper-zorroa).

## **2 JARDUERA**

<b>2 JARDUERA: Ezagutzen ditugu haurren eskubideak? Errespetatzen ditugu haurren eskubideak? Nola inplikatzin gara hauren defentsan?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	10 ordu presentziazkoak eta 30 minutu ez-presentziazkoak
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	<p>2.1. ATAZA. Arazoaren zatiak identifikatu: zer gertatu da, nortzuk daude inplikaturik, nolako da eragindako pertsonen inplikazio-maila (3 ordu presentziazkoak).</p> <p>2.2. ATAZA. Nola inplikatzin gara haurren eskubideen defentsan? (1 ordu presentziazkoa).</p> <p>2.3. ATAZA. Unibertsalak dira haurren eskubideak? Haurren eskubideak beste kultura batzuetatik ikusita (4 ordu presentziazkoak).</p> <p>2.4. ATAZA. Arazo egituratzailearen aktore desberdinak identifikatu (2 ordu presentziazkoak).</p> <p>Elkarrizketarako egunkaria (30 minutu ez-presentziazkoak)</p>
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>Praktika-koadernoko irakurgaiak, campuseko fotokopiagailuan aurkituko dituzte. (2.1. eta 2.3. Atazak)</p> <p>Ikaslearen koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa (2.4. Ataza)</p> <p>Rol-jokoa (2.2. Ataza)</p>
<b>ENTREGAGAIK</b>	<p>Haurren eskubideen dekalogoak eta arazoaren identifikazioa (paper-zorroa). (2.1. Ataza)</p> <p>Rol-jokoaren ondorioen koadroa (paper-zorroa). (2.2. Ataza)</p> <p>Eztabaidako datuen orria (paper-zorroa). (2.3. Ataza)</p> <p>Eztabaida baloratzeko orria (paper-zorroa). (2.3. Ataza)</p> <p>Arazoko aktoreak identifikatzeko orria (paper-zorroa). (2.4. Ataza)</p> <p>Gertaeren eta giza elkarreraginaren sekuentziazko katea (paper-zorroa). (2.4.)</p>



<http://sociologiaucm.blogspot.com.es/p/ninos.html>

➤ **2.1. ATAZA:**

<b>2.1. ATAZA: Arazoaren zatiak identifikatu: zer gertatzen da, nortzuk daude inplikaturik, nolakoa da eragindako pertsonen inplikazio-maila</b>	
IARUPENA	3 ordu presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana
BALIABIDEAK	Praktika-koadernoko irakurgaiak, campuseko fotokopiagailuan aurkituko dituzte
ENTREGAGAIAK	Haurraren eskubideen dekalogoak eta arazoaren identifikazioa (paper-zorroa)

✓ **Lanaren helburua:**

Arazoaren zatiak identifikatu: zer gertatu da, nortzuk daude inplikaturik, nolakoa da eragindako pertsonen inplikazio-maila.

✓ **Lanerako materialak:**

Ikasleek irakurtzeko material hau izango dute, irakasgaiko praktika-koadernoan aurkituko dutelarik:

- ONU. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.
- UNICEF. (2010) *Haurren Eskubideak*. Ezinbesteko hamabi arau haurtzaro zoriontsua izateko. Ikasmina. Bilbo.
- Haurraren Eskubideen Konbentzioa (1989)

✓ **Lan-prozesua:**

- 1.- Taldea bi bikotetan banatuko da eta bikote bakoitzak honako jarduerak egingo ditu:
  - 1.- Goian adierazitako testuen irakurketa. (1 ordu presentziazkoa)
  - 2.- Irakurritako testuak komentatu (15 minutu presentziazkoak)
  - 3.- Haurraren oinarriko hamar eskubideen dekalogoak garatu (15 minutu presentziazkoak)
  - 3.- Bi bikoteek egin duten dekalogoak batera jarriko dute eta lauren artean azken dekalogoak egingo dute (1/2 ordu presentziazkoa).
- 3.- Taldeak aurrez irakurritako UNICEFen testuak hartuko du eredutzat, eta galdera hauek eztabaidatuko ditu: (1/2 ordu presentziazkoa).

- Zein dira planteatutako arazoan betetzen ez diren eskubideak? (=Zer gertatu da?)
- Nortzuk daude inplikaturak?
- Nolakoa da eragindako pertsonen inplikazio-maila?

4.- Taldeak idatziz zehaztuko ditu aurrez eztabaidatutako puntuak: zein dira betetzen ez diren eskubideak (zer gertatu da), nortzuk daude inplikaturak eta nolakoa da eragindako pertsonen inplikazio-maila. (1/2 ordu presentziazkoa).

✓ **Entregagaiak:**

Haurren eskubideen dekalogoia eta arazoaren identifikazioa (paper-zorroa).



<http://www.evangelinaaronne.com.ar/etiqueta/ninos>

➤ **2.2. ATAZA:**

<b>2.2. ATAZA: Nola inplikatzeko gara haurren eskubideen defentsan?</b>	
IRAUPENA	1 ordu presentziazkoa
MODALITATEA	Talde-lana / bakarkakoa
BALIABIDEAK	Rol-jokoa
ENTREGAGAIAK	Rol-jokoaren ondorioen koadroa (paper-zorroa)

✓ **Lanaren helburua:**

Taldekideak arazoko protagonista nagusiekin identifikatuko dira: Yasminaren ama/aita, neskatoaren irakaslea eta ikastetxeko zuzendaria.

✓ **Lan-prozesua:**

- 1.- Hiru taldekide arazoko protagonista nagusiekin identifikatuko dira: Yasminaren ama/aita, neskatoaren irakaslea eta ikastetxeko zuzendaria. Laugarren kideak moderatzailearena egingo du.
- 2.- Taldekide bakoitzak lau roletako bat beteko du (aita/ama, irakaslea, zuzendaria eta moderatzailea), zozketan aukeratuta. Hiru protagonistetako lehena hasiko da eta, bere burua aurkeztu ondoren, bere ideiak bota eta arrazoitu egingo ditu ahalik eta zehatzen (Yasminak txadorra eskolara eramatearen alde edo aurka). Kide bakoitzak 5 minutu izango ditu hizketarako, guztira 15 minutuko azalpena. Moderatzaileak bermatuko du taldekideak denborara eta hitza errespetatzeko arauetara mugatzea.
- 3.- Rol-jokoaren ondoren, elkarrizketa egingo da taldekideen artean (15 minutu). Elkarrizketa bakoitza zentratu behar da ikasleek egindako rolen interpretazioetan, beren ekintzen motibazioetan eta horien ondorioetan. Koadro batean idatziko dituzte hiru ondorio nagusiak (ikus behan erredua).
- 4.- Hurrengo pausoa ikasleek berriro rol-jokoa funtzio berak hartuta antzeztea da, baina funtzio hauek euren ideiekin birdefinituz (15 minutu).
- 5.- Antzezpen hau amaituta, beste elkarrizketa bat izango dute (15 minutu), eta motibazio berriak eta hauen ondorioak aztertuko dituzte. Koadroan idatziko dituzte elkarrizketa honen 3 ondorio nagusiak. Ondoren, arrazoituko dute zein den errespetatsua haurren eskubideekiko.



**Rol-jokoaren emaitzak jasotzeko orria:**

	<b>1 ELKARRIZKETA</b>	<b>2 ELKARRIZKETA</b>
1 Ondorioa		
2 Ondorioa		
3 Ondorioa		
Bi elkarrizketetatik zein da errespetutsuena haurren eskubideekiko? Zergatik?		

✓ **Entregagaia:**

Rol-jokoaren ondorioen koadroa (paper-zorroa).




[http://bipolarlatinoamerican.blogspot.com.es/2010\\_08\\_01\\_archive.html](http://bipolarlatinoamerican.blogspot.com.es/2010_08_01_archive.html)

➤ **2.3. ATAZA:**

<b>2.3. ATAZA: Unibertsalak dira haurren eskubideak? Haurren eskubideak beste kultura batzuetatik ikusita.</b>	
IRAUPENA	4 ordu presentziazkoak honela banatuta: <ul style="list-style-type: none"> <li>Filma ikusi: 2 ordu presentziazkoak</li> <li>Talde-lana pelikularen inguruan: 1 ordu presentziazkoa</li> <li>Eztabaida: 1 ordu presentziazkoa</li> </ul>
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona).
BALIABIDEAK	Praktika-koadernoko irakurgaiak, campuseko fotokopiagailuan aurkituko dituzte.
ENTREGAGAIAK	Eztabaidako datuen orria (paper-zorroa).  Eztabaida baloratzeko orria (paper-zorroa).

✓ **Lanaren helburua:**

“[Buda explotó por vergüenza](#)” filma ikusi. Film honetan, haurren eskubideekiko errespetu eza lantzen da eta helduen jarrera integrismo erlijiosoaren bizitza-fedea den gizarte batean.



<http://rosacapote.blogspot.com.es/2011/01/buda-exploto-por-vergüenza.html>

✓ **Lan-prozesua:**

1.1.- “Buda explotó por vergüenza” filma ikusi. (2 ordu presentziazkoak)

1.2.- Lan hau egiteko, irakasgaiko praktika-koadernoko materiala irakurriko da. Filmari buruzko informazio orokorraz gain, bertan tratatutako gai desberdinak hartzen dituen galdetegi bat ere landuko da (1 ordu presentziazkoa).

1.3.- Lau ikasleko taldea bikotetan zatituko da eta bakoitzak rol bat hartuko du argudiatuz defendatzeko, batetik, filmean ageri den integrismo islamikoaren ikuspegitik eta, bestetik, mendebaldeko sistema demokratikotik, zein printzipiok agindu behar duten lehen hezkuntzan. Erabilitako argudioak bi koadrotan adierazi beharko dira, behean agertuko den bezala (presentziazko ordu erdia eztabaidarako eta presentziazko ordu erdia emaitzak idazteko).

**Eztabaidako datuak jasotzeko orria:**

1 Argudioa	Adibideak	Aurkako argudioak
2 Argudioa	Adibideak	Aurkako argudioak
3 Argudioa	Adibideak	Aurkako argudioak

**Eztabaida baloratzeko orria:**

	Argudio sinesgarriak eta arrazoituak erabili dituzte	Hizketarako txanda errespetatu dute	Aurkako iritziak errespetatu dituzte
A Taldea			

B Taldea			

✓ **Entregagaia:**

Eztabaidako datuen orria (paper-zorroa).

➤ **2.4. ATAZA:**

<b>2.4. ATAZA: Arazo egituratzaileko aktore desberdinak identifikatu</b>	
IRAUPENA	2 ordu presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona) / Talde arteko lana
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa
ENTREGAGAIK	Arazoko aktoreak identifikatzeko orria (paper-zorroa).  Gertaeren eta giza elkarreraginen sekuentziazko katea (paper-zorroa).

✓ **Lanaren helburua:**

2.2. jardueran, rol-joko baten bidez landu dira gurasoen, irakasleen, eta ikastetxeko zuzendaritzaren motibazioak gatazka sorrarazi duen gaiari dagokionez, Yasminak txadorra jantzita eramatea gelan, hain zuzen. Praktika honetan, arazoan parte hartzen duten aktore guztiak identifikatuko dira.

✓ **Lan-prozesua:**

1.- Taldekideek koadro batean identifikatuko dituzte arazoko aktore desberdinak, gizabanako edo presio-talde bakoitzaren ezaugarriak eta eskola-egituraren barneko funtzioak definituko dira (1 ordu presentziazkoa). Lan hau bi fasetan egingo da: lehenengoan, taldea bi bikotetan banatuko da eta bikote bakoitzak arestian aipatutako ataza egingo du (1/2 ordu presentziazkoa), jarraian, bi bikoteek bateratze-lana egiteko eta paper-zorroan sartuko den koadro komuna egiteko (1/2 ordu presentziazkoa).

**Arazoko aktoreak identifikatzeko orria:**

<b>GIZABANAKOA EDO PRESIO- TALDEA</b>	<b>EZAUGARRIAK</b>	<b>ESKOLA- EGITURAREN BARNEKO FUNTZIOAK</b>
Yasmina		
Gurasoak		
Irakaslea		

Zuzendaria		

2.- Gertaeren eta giza elkarreraginen sekuentzia-katea (1 ordu presentiazkoa): taldekideek ikus-mapa egingo dute arazo egituratzailean ematen den logika sekuentzialarena eta giza- elkarreraginarena. Ikasleek arazoaren puntu zehatzak identifikatuko dituzte progresio ordenatu eta koherente batean kokatzeko.

✓ **Entregagaiak:**

Arazoko aktoreak eta gertaeren eta giza elkarreraginen katea identifikatzeko orria.



<http://www.bebesymas.com/ser-padres/fiesta-multicultural-una-buena-idea-para-implementar-en-las-escuelas-infantiles>

## **3 JARDUERA**

<b>3 JARDUERA: Nola sortu da arazoa? Zein neurri hartu dira alde edo aurka?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	2 ordu presentziazkoak eta 30 minutu ez-presentziazkoak
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	3 JARDUERA: Nola sortu da arazoa? Zein neurri hartu dira alde edo aurka? (2 ordu presentziazkoak).  ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak)
<b>BALIABIDEAK</b>	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa (3 Jarduera)
<b>ENTREGAGAIK</b>	Amaierako paper-zorroa (3 Jarduera)

### ✓ **Lan-prozesua**

1. Lan honetarako, ikasleek lau laguneko taldeetan lan egingo dute. Planteatutako arazoa protagonista desberdinen ikuspuntutik aztertu beharko dute, honela, arazoekin eta erabakitze aukerekin ohitzeko.
2. Ikasleek datu zehatzak ordenatuko dituzte, prozedura analitikoak aplikatu, galderak artikulatu, gertaera nabarmenei buruz hausnartu, ondorioak atera eta arazoaren konponketari bide emango dioten ekintzak gomendatu. Segidako galderak gidatzat balio dezakete analisi hau fokatzeko:
  - a. Zein da arazoa?
  - b. Zerk eragin ahal izan du arazoa?
  - c. Zein argudio eman daitezke hipotesi desberdinak babesteko edo baztertzeko?
  - d. Zein neurri hartu dira alde edo aurka?
  - e. Zer ondorio atera daitezke? Zer gomendio egin daitezke?
3. Ikasleek idatzizko txostena prestatuko dute eta bertan zera aurkeztuko dute: arazoaren ebaluazioa, erabaki-aukerak, beraiek ikusten dituzten bezala, eta gomendioak erabakia hartzeko.

### ✓ **Entregagaia:**

Idatzizko txostena arazoaren ebaluazioaz, erabaki-aukerez eta erabakia hartzeko gomendioez (Paper-zorroa).

## 4 JARDUERA

<b>4 JARDUERA: Zein dira arazoarekiko erreakzioak? Zer irtenbide planteatzen dira?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	6 ordu presentziazkoak eta 30 minutu ez-presentziazkoak
<b>MODALIDAD</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	<p>4.1. ATAZA. Zein dira <i>kultura aniztasunak ikasgelan</i> sortzen dituen gatazkekiko erreakzioak? (4 ordu presentziazkoak)</p> <p>4.2. ATAZA. Nola erreakzionatzen dute inplikatuak Yasminak gelara txadorra eramateak sortutako arazoaren aurrean? (2 ordu presentziazkoak)</p> <p>ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak)</p>
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>"La Clase" filma (4.1. Ataza)</p> <p>Filmari buruzko lan-materiala, praktika-koadernoan dago eta campuseko fotokopiagailuan aurkituko dute. (4.1. Ataza)</p> <p>Prentsa digitala. (4.1. Ataza)</p> <p>Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (4.2. Ataza)</p>
<b>ENTREGAGAIK</b>	<p>Filmari buruzko galdetegia (Paper-zorroa). (4.1. Ataza)</p> <p>Prentsa digitalari buruzko lana (Paper-zorroa). (4.1. Ataza)</p> <p>Arazoko aktoreen erreakzioak eta planteatutako arazoak identifikatzen diren orria. (Paper-zorroa) (4.2. Ataza)</p>



<http://planocreativo.wordpress.com/2010/07/10/%C2%BFrecuerdas-tu-primer-dia-de-escuela/>



➤ **4.1. ATAZA:**

<b>TAREA 4.1: Zein dira kultura aniztasunak ikasgeletan sortzen dituen gatazkekiko erreakzioak?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	4 ordu presentziazkoak:  Filma ikusi: 2 ordu presentziazkoak  Talde-lana filmari buruz: 1 ordu presentziazkoa  Prentsa-lana: 1 ordu presentziazkoa
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona).
<b>BALIABIDEAK</b>	“La Clase” filma  Filmari buruzko lan-materiala, praktika-koadernoan dago eta campuseko fotokopiagailuan aurkituko dute  Prentsa digitala
<b>ENTREGAGAIK</b>	Filmari buruzko galdetegia (Paper-zorroa).  Prentsa digitalari buruzko lana (Paper-zorroa).

✓ **Lanaren helburua:**

Jarduera honetan [“La Clase”](#) filma ikusiko da. Film honen argudioa Paris kanpoaldeko ikastetxe batean gertatzen da, eta bertan kultura aniztasunak gatazkak eragiten ditu. Film honetan, zera erakusten zaigu: nola sortzen den arazo hauetako bat, protagonistak, hauen erreakzioak eta gatazka ebazteko sortzen diren proposamen desberdinak.

✓ **Lan-prozesua:**

1.1.- Jarduera hau burutzeko, ikasleak praktika-koadernoan duen materiala irakurriko du. Filmari buruzko informazio orokorra irakurtzeaz gain, filmak tratatzen dituen gai desberdinak landuko ditu taldeak (1 ordu presentziazkoa).

1.2.- Taldekideek prentsa digitalean bilatuko dituzte kultura aniztasunagatiko eskola-gatazkaz ari diren bi albiste. Hauen inguruko iruzkin labur bat egingo dute, folio batekoa (protagonistak eta gatazka desberdinetan jokatzeko duten papera). (1 ordu presentziazkoa).



<http://arcoirisc6.blogspot.com.es/2011/05/pelicula.html>

✓ **Entregagaia:**

Filmari buruzko galde-sorta (Paper-zorroa).

Prentsa digitalari buruzko lana (Paper-zorroa).

➤ **4.2. ATAZA:**

<b>4.2. ATAZA: Nola erreakzionatzen dute inplikatuak Yasminak gelara txadorra eramateak sortutako arazoaren aurrean?</b>	
IRAUPENA	2 ordu presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona).
BALIABIDEAK	Ikaslearen koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa.
ENTREGAGAIAK	Arazoko aktoreen erreakzioak identifikatzen diren orria eta planteatutako irtenbideak.

✓ **Lanaren helburua:**

Jarduera honetan, ikasleek arazoko aktoreen erreakzioak eta planteatutako irtenbideak identifikatuko dituzte.

✓ **Lan-prozesua:**

1.- Taldekideek koadro batean identifikatuko dituzte arazoko aktoreen erreakzioak eta planteatu dituzten irtenbideak (40 minutu presentziazkoak).

**Arazoko aktoreen erreakzioak eta planteatzen dituzten irtenbideak identifikatzeko orria:**

<b>INDIBIDUOA EDO PRESIO- TALDEA</b>	<b>ERREAKZIOAK</b>	<b>PLANTEATZEN DITUZTEN IRTENBIDEAK</b>


2.- Talde bakoitzeko kide batek (irakasleak hautatua) gainerako gelakideen aurrean aurkeztuko ditu koadroan jasotako datuak. Talde bakoitzeko kideak interesgarri iruditzen zizkien besteen ideia edo ekarpenak idazten joango dira (20 minutu presentziazkoak).

3.- Taldea azken koadroa egiteko bilduko da. Koadro honetan, beste taldeetako ordezkariak aurkezpenean bildutako ekarpenak ere sartuko dituzte (1 ordu presentziazkoa).

✓ **Entregagaia:**

Arazoko aktoreen erreakzioak eta planteatu diren irtenbideak identifikatzen diren orria.



<http://viejogrunon.blogspot.com.es/2009/05/los-ninos-del-mundo.html>

## **5 JARDUERA**

<b>5 JARDUERA: Zer erantzun eman arazoari?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	4 ordu presentziazkoak eta 3:30 ez-presentziazkoak.
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	<p>5.1. ATAZA. <i>Yasminaren kasuari buruzko Ikastetxearen Txostena</i> idatzi (4 ordu presentziazkoak eta 2 ordu ez-presentziazkoak).</p> <p>5.2. ATAZA. Eztabaida blog baten bitartez Yasminaren kasurako aurkeztutako irtenbideen inguruan (1 ordu ez-presentziazkoa).</p> <p>ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak).</p>
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>Rol-jokoa. (5.1. Ataza)</p> <p>Ikaslearen koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (5.1. Ataza)</p> <p>Eztabaida Blog baten bitartez. (5.2. Ataza)</p>
<b>ENTREGAGAIK</b>	<p>Ikastetxearen txostena Yasminaren kasuari buruz. (5.1. Ataza)</p> <p>Talde bakoitzak Blogean emandako iritziak, beste bi lan-taldek planteatutako irtenbideen inguruan. (5.2. Ataza)</p>



<http://elclubdelmejorvendedor.blogspot.com.es/2010/10/si-su-producto-no-vende-soluciones-sepa.html>

➤ **5.1. ATAZA:**

5.1. ATAZA: <i>Yasminaren kasuari buruzko ikastetxearen txostena egin.</i>	
IRAUPENA	4 ordu presentziazkoak eta 2 ordu ez-presentziazkoak.
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona).
BALIABIDEAK	Rol-jokoak.  Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa.
ENTREGAGAIAK	Ikastetxearen txostena Yasminaren kasuari buruz.

✓ **Lanaren helburua:**

Ataza honetan gelako taldeak *Yasminaren kasuari buruzko ikastetxearen txostena* egingo du. Txosten hau egiteko taldekideek arazoko datuak ordenatu beharko dituzte: aurrekariak; inplikaturako subjektuak, erantzun-mailak; ondorioak. Jarduera honen bidez, ikasleak ikastetxeko zuzendaritzaren tokian jarriko dira eta ebazpen-estrategia desberdinak proposatu beharko dituzte, planteaturako arazoari irtenbidea emateko eredu desberdinak barne. Jarduera honetan, ikasleek lortutako emaitzak aztertuko dituzte, aurreko jardueretan bota dituzten hipotesiekiko koherentzia eta gelan ikasitako ezagutzak aztertuz. Beraz, lan honen helburua ikasitakoaren berrelikadura da. Ikastetxeko zuzendaritza gisa prestatzen duten txostenean ondorioak justifikatu beharko dituzte, kontuan izanda horrekin ez dela itxiztat emango arazorako beste irtenbide mota bateranzko bidea.

✓ **Lan-prozesua:**

Ikastetxeko zuzendaritzaren txostena egiteko, lan-taldeak pauso hauek jarraituko ditu:

- Arazoko datuak honako gidoi orientagarri honen arabera ordenatuko dira:
  - Aurrekariak:
    1. Gertaeren historia (Gertaerak, denborazko jarraipena)
    2. Jokabide-mapa: erasandako alorrak (familia, gelako taldea, irakasleak, GE, Erakundeak, ingurune soziokulturala).
    3. Arazoa ekarri duten gakoak.

- Inplikaturako subjektuak: historia familiarra, testuinguru soziokulturala, nortasuna, subjektuaren edo esku-hartze taldearen baloreak (elkartek, irakasleak, erakundeak...)
- Arazoan inplikaturakoen erantzun-mailak: ezagutzazkoak, afektibo-emozionalak, moralak, sozialak.
- Ondorioak.
- Ikastetxeko zuzendaritzak planteaturako arazoaren irtenbidea.

✓ **Entregagaia:**

Ikastetxearen txostena Yasminaren kasuari buruz (Paper-zorroa).



<http://burbankmiddle.wordpress.com/espanol-3/nuevo-directora/>

➤ **5.2. ATAZA:**

**5.2. ATAZA: Eztabaida Blog baten bidez Yasminaren kasuari aurkeztutako irtenbideez.**

IRAUPENA	1 ordu ez-presentziazkoa.
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona).
BALIABIDEAK	Eztabaida Blog bidez.
ENTREGAGAIAK	Talde bakoitzean Blogean emandako iritziak beste bi lan-taldek planteatutako irtenbideei buruz.

✓ **Lanaren helburua:**

Behin txosten hau amaituta, Blog batean sartuko da talde bakoitzak ikastetxeko zuzendaritzaren tokian jarrita landu duen arazoaren irtenbidea. Talde bakoitzak Blog honetan aintzat hartu beharko ditu beste bi lan-taldek planteatutako irtenbideak. Jarduera honen bidez, ikasleek beste taldeek planteatutako irtenbideak aztertuko dituzte eta irtenbide hauen kritika eraikitzailea egingo dute, ahaztu gabe planteatutako arazoak ez duela eskaintzen irtenbide bakarra, ezta itxia ere.

✓ **Lan-prozesua:**

Lan-talde bakoitzak irakasleak sortutako Blog batean sartuko ditu Ikastetxeko Zuzendaritzaren Txostenean Yasminaren kasuaren inguruan lortutako ondorioak. Segidan, talde bakoitzak beste bi lan-talderen ondorioen ebaluazio kritikoa egingo du; ondorio hauei iruzkin, iradokizun, erantzun, galdera, eta abarrekin erantzungo die. Irakasleak talde bakoitzaren iruzkinak ebaluatuko ditu.

✓ **Entregagaia:**

Talde bakoitzak Blogean jarritako iritziak beste bi lan-taldek planteatutako irtenbideei buruz (Paper-zorroa).



<http://apuntesderrhh.blogspot.com.es/>



## **6 JARDUERA**

<b>6 JARDUERA: Zer ikasi dugu?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	5 ordu presentziazkoak eta 1:30 ordu ez-presentziazkoak.
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	6 JARDUERA: Zer ikasi dugu? (5 ordu presentziazkoak eta 1 ordu ez-presentziazkoa).  ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak).
<b>BALIABIDEAK</b>	Orain arte arazoaren ebazpenean landutako material guztia. (6 Jarduera)  Ikaslearen koadernoko materiala, irakaslek Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (6 Jarduera)
<b>ENTREGAGAIK</b>	Arazoaren ebazpeneko amaierako paper-zorroa. (6 Jarduera.)

### ✓ **Lan-prozesua:**

Ikasleek paper-zorroa egingo dute eta taldeak bertan zera sartuko du:

- Arazoaren Glosarioa: kontzeptu nagusiak, definizio eta erreferentzia eta guzti.
- Taldeak antzemandako ikaskuntza-beharren zerrenda. Zer ikasi behar izan duten eta zer ikasi den.
- Erabilitako informazio-iturriak eta informazio-bilaketaren emaitzak. Informazio-mota desberdinen artean bereizi eta iturri hauei buruzko asebetetasun-maila zehaztu.
- Arazoko bost galdera giltzarri. Galderen ebazpen argudiatua, orain arte egindako jarduera desberdinetan zehar bildutako datuetatik eskuratutako erantzunekin.
- Arazoko datuen sailkapena.
- Arazoaren analisi funtzionala egin, protagonista bakoitzaren erantzukizunak eta ekintzak azalduz.
- Taldearen ebaluazioa eta taldekide bakoitzaren auto-ebaluazioa.
- Elkarrizketarako egunkariak.

### ✓ **Entregagaia:**

Aurrez aipatutako material guztia arazoaren ebazpeneko amaierako paper-zorroan sartuko da eta irakasleari entregatuko zaio.



<http://comofijarmetas.com/una-meta-es-mas-que-un-deseo-2/>

## 4) JARDUEREN ETA ATAZEN LABURPENA

Jarraian, ikasleak egin beharreko jardueren eta atazen laburpena agertuko da.

### **1 JARDUERA**

<b>1 JARDUERA: Badakigu sortzen zaizkigun arazoan aurrean hausnartzen? Ezagutzen dugu gure ingurune soziala? Gai gara identifikatzeko bizi garen gizartearen eraikuntzan elkarreragiten duten elementu desberdinak?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	4 ordu presentziazkoak / 2:30 ordu ez-presentziazkoak
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona).
<b>ATAZAK</b>	<p>1.1. ATAZA. AOIren aurkezpena (30 minutu presentziazkoak).</p> <p>1.2. ATAZA. Arazoaren aurkezpena (30 minutu).</p> <p>1.3. ATAZA. Planteatutako arazoa definitu eta sorrarazi duten kausak ezarri (1 ordu presentziazkoa eta 2 ordu ez-presentziazkoak).</p> <p>1.4. ATAZA. Ezagutzen dugu gure ingurunea? (2 ordu presentziazkoak eta 2 ordu ez-presentziazkoak).</p> <p>ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak)</p>
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (1.1., 1.2. eta 1.3. Atazak)</p> <p>Iturri bibliografikoak, internet, ahozko iturriak. (1.4. Ataza)</p>
<b>ENTREGAGAIK</b>	<p>Planteatutako arazoaren definizioa eta sorrarazi duten kausen hipotesiak (paper-zorroa) (1.3. Ataza)</p> <p>Ingurune sozialaren deskribapena (paper-zorroa) (1.4. Ataza)</p>

➤ **1.1. ATAZA:**

<b>1.1. ATAZA: AOIren aurkezpena</b>	
IRAUPENA	30 minutu presentziazkoak
MODALITATEA	Magistrala
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa
ENTREGAGAIK	Ez

➤ **1.2. ATAZA:**

<b>1.2. ATAZA: Arazoaren aurkezpena</b>	
IRAUPENA	30 minutu presentziazkoak
MODALITATEA	Magistrala
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa
ENTREGAGAIK	Ez

➤ **1.3. ATAZA:**

<b>1.3. ATAZA: Planteatutako arazoa definitu eta sorrarazi duten kausen hipotesiak ezarri</b>	
IRAUPENA	1 ordu presentziazkoa eta 2 ordu ez-presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman argitaratutakoa
ENTREGAGAIK	Planteatutako arazoaren definizioa eta sorrarazi duten kausen hipotesiak (paper-zorroa)

➤ **1.4. ATAZA:**

<b>1.4. ATAZA: Ezagutzen dugu gure ingurune soziala?</b>	
IRAUPENA	2 ordu presentziazkoak eta 2 ordu ez-presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana
BALIABIDEAK	Iturri bibliografikoak, internet, ahozko iturriak
ENTREGAGAIK	Ingurune sozialaren deskribapena (paper-zorroa)

## 2 JARDUERA

<b>2 JARDUERA: Ezagutzen dituzu haurren eskubideak? Errespetatzen ditugu haurren eskubideak? Nola inplikatzeko gara hauren defentsan?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	10 ordu presentziazkoak eta 30 minutu ez-presentziazkoak
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	<p>2.1. ATAZA. Arazoaren zatiak identifikatu: zer gertatu da, nortzuk daude inplikaturik, nolako da eragindako pertsonen inplikazio-maila? (3 ordu presentziazkoak).</p> <p>2.2. ATAZA. Nola inplikatzeko gara haurren eskubideen defentsan? (1 ordu presentziazkoak).</p> <p>2.3. ATAZA. Unibertsalak dira haurren eskubideak? Haurren eskubideak beste kultura batzuetatik ikusita (4 ordu presentziazkoak).</p> <p>2.4. ATAZA. Arazo egituratzailearen aktore desberdinak identifikatu (2 ordu presentziazkoak).</p> <p>ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak).</p>
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>Praktika-koadernoko irakurgaiak, campuseko fotokopiagailuan daude. (2.1. eta 2.3. Atazak)</p> <p>Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (2.4. Ataza)</p> <p>Rol-jokoa (2.2. Ataza)</p>
<b>ENTREGAGAIAK</b>	<p>Haurren eskubideen dekalogoak eta arazoaren identifikazioa (paper-zorroa). (2.1. Ataza)</p> <p>Rol-jokoaren ondorioen koadroa (paper-zorroa). (2.2. Ataza)</p> <p>Eztabaidako datuen orria (paper-zorroa). (2.3. Ataza)</p> <p>Eztabaida baloratzeko orria (paper-zorroa). (2.3. Ataza)</p> <p>Arazoko aktoreak identifikatzeko orria (paper-zorroa). (2.2. Ataza)</p> <p>Gertaeren eta giza elkarreraginaren sekuentziazko katea (paper-zorroa). (2.4. Ataza)</p>

➤ **2.1. ATAZA:**

**2.1. ATAZA: Arazoaren zatiak identifikatu: zer gertatzen da, nortzuk daude inplikaturik, nolakoak dira eragindako pertsonen inplikazio-maila**

IRAUPENA	3 ordu presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana
BALIABIDEAK	Praktika-koadernokoa izango den materiala, campuseko fotokopiagailuan aurkituko dute.
ENTREGAGAIAK	Haurraren eskubideen dekalogoak eta arazoaren identifikazioa (paper-zorroa)

➤ **2.2. ATAZA:**

**2.2. ATAZA: Nola inplikatu gara haurren eskubideen defentsan?**

IRAUPENA	1 ordu presentziazkoa
MODALITATEA	Talde-lana / bakarka
BALIABIDEAK	Rol-jokoa
ENTREGAGAIAK	Rol-jokoaren ondorioen koadroa (paper-zorroa)

➤ **2.3. ATAZA:**

**2.3. ATAZA: Unibertsalak dira haurren eskubideak? Haurren eskubideak beste kultura batzuetatik ikusita.**

IRAUPENA	4 ordu presentziazkoak honela banatuta: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Filma ikusi: 2 ordu presentziazkoak</li> <li>• Talde-lana filmari buruz: 1 ordu presentziazkoa</li> <li>• Eztabaida: 1 ordu presentziazkoa</li> </ul>
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona).
BALIABIDEAK	Praktika-koadernokoa izango diren irakurgaiak, campuseko fotokopiagailuan aurkituko dituzte.
ENTREGAGAIAK	Eztabaidako datuen orria (paper-zorroa). Eztabaida baloratzeko orria (paper-zorroa).

➤ **2.4. ATAZA:**

<b>2.4. ATAZA: Arazo egituratzailearen aktore desberdinak</b>	
IRAUPENA	2 ordu presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona) / Talde arteko lana
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala eta irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa.
ENTREGAGAIAK	Arazoko aktoreak identifikatzeko orria (paper-zorroa).  Gertaeren eta giza elkarreraginen sekuentziazko katea (paper-zorroa).

## **3 JARDUERA**

<b>3 JARDUERA: Nola sortu da arazoa? Zer neurri hartu dira alde edo aurka?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	2 ordu presentziazkoak eta 30 minutu ez-presentziazkoak
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	3 JARDUERA: Nola sortu da arazoa? Zer neurri hartu dira alde edo aurka? (2 ordu presentziazkoak).  ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak)
<b>BALIABIDEAK</b>	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa (3 Jarduera)
<b>ENTREGAGAIK</b>	Azken paper-zorroa (3 Jarduera)



## 4 JARDUERA

<b>4 JARDUERA: Zein dira arazoaren aurreko erreakzioak? Zer irtenbide planteatzen dira?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	6 ordu presentziazkoak eta 30 minutu ez-presentziazkoak
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	<p>4.1. ATAZA. Zein dira kultura aniztasunak ikasgeletan sortzen dituen gatazkekiko erreakzioak? (4 ordu presentziazkoak)</p> <p>4.2. ATAZA. Nola erreakzionatzen dute inplikatuak Yasminak gelara txadorra eramateak planteatzen duen arazoaren aurrean? (2 ordu presentziazkoak)</p> <p>EKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak)</p>
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>“La Clase” filma (4.1. Ataza)</p> <p>Praktika-koadernoko filmari buruzko lan-materiala, campuseko fotokopiagailuan aurkituko dute. (4.1. Ataza)</p> <p>Prentsa digitala. (4.1. Ataza)</p> <p>Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (4.2. Ataza)</p>
<b>ENTREGAGAIK</b>	<p>Filmari buruzko galde-sorta (Paper-zorroa). (4.1. Ataza)</p> <p>Prentsa digitalari buruzko lana (Paper-zorroa). (4.1. Ataza)</p> <p>Arazoko aktoreen erreakzioak eta planteatzen dituzten irtenbideak identifikatzen diren orria. (Paper-zorroa) (4.2. Ataza)</p>

➤ **4.1. ATAZA:**

<b>4.1. ATAZA: Zein dira kultura aniztasunak geletan sortzen dituen gatazkekiko erreakzioak?</b>	
IRAUPENA	4 ordu presentziazkoak:  Filma ikusi: 2 ordu presentziazkoak  Filmari buruzko talde-lana: 1 ordu presentziazkoa  Prensa-lana: 1 ordu presentziazkoa
MODALITATEA	Alde-lana (4 pertsona).
BALIABIDEAK	“La Clase” filma  Praktika-koadernoko filmari buruzko lan-materiala, campuseko fotokopiagailuan aurkituko dute.  Prensa digitala
ENTREGAGAIAK	Filmari buruzko galde-sorta (Paper-zorroa).  Prensa digitalari buruzko lana (Paper-zorroa).

➤ **4.2. ATAZA:**

<b>4.2. ATAZA: Nola erreakzionatzen dute inplikatuak Yasminak gelara txadorra eramateak planteatzen duen arazoaren aurrean?</b>	
IRAUPENA	2 ordu presentziazkoak
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona).
BALIABIDEAK	Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa.
ENTREGAGAIAK	Arazoko aktoreen erreakzioak eta planteatzen dituzten irtenbideak identifikatzen diren orria.

## **5 JARDUERA**

<b>5 JARDUERA: Zer erantzun eman arazoari?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	4 ordu presentziazkoak eta 3:30 ordu ez-presentziazkoak.
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	<p>5.1. ATAZA. <i>Yasminaren kasuari buruzko ikastetxearen txostena</i> egin (4 ordu presentziazkoak eta 2 ordu ez-presentziazkoak).</p> <p>5.2. ATAZA. Eztabaida Blog baten bidez Yasminaren kasuari aurkeztutako irtenbideei buruz (1 ordu ez-presentziazkoa).</p> <p>ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak).</p>
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>Rol-jokoa. (5.1. Ataza)</p> <p>Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (5.1. Ataza)</p> <p>Eztabaida Blog baten bidez. (5.2. Ataza)</p>
<b>ENTREGAGAIAK</b>	<p>Ikastetxearen txostena Yasminaren kasuz. (5.1. Ataza)</p> <p>Talde bakoitzak Blogean jarritako iritziak beste bi lan-taldek planteatutako irtenbideei buruz. (5.2. Ataza)</p>

### ➤ **5.1. ATAZA:**

<b>5.1. ATAZA: <i>Yasminaren kasuari buruzko Ikastetxearen Txostena</i></b>	
<b>IRAUPENA</b>	4 ordu presentziazkoak eta 2 ordu ez-presentziazkoak.
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona).
<b>BALIABIDEAK</b>	<p>Rol-jokoak.</p> <p>Ikaslearen Koadernoko materiala eta irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa.</p>
<b>ENTREGAGAIAK</b>	Ikastetxearen txostena Yasminaren kasuz.

### ➤ **5.2. ATAZA:**

**5.2. ATAZA: Eztabaida Blog baten bidez Yasminaren kasuari aurkeztutako**

### **irtenbideen inguruan.**

IRAUPENA	1 ordu ez-presentziazkoa.
MODALITATEA	Talde-lana (4 pertsona).
BALIABIDEAK	Eztabaida Blog baten bidez.
ENTREGAGAIAK	Talde bakoitzak beste bi lan-taldek planteatutako irtenbideei buruz emandako iritziak.

## **6 JARDUERA**

<b>6 JARDUERA: Zer ikasi dugu?</b>	
<b>IRAUPENA</b>	5 ordu presentziazkoak eta 1:30 ordu ez-presentziazkoak
<b>MODALITATEA</b>	Talde-lana (4 pertsona)
<b>ATAZAK</b>	6 JARDUERA: Zer ikasi dugu? (5 ordu presentziazkoak eta 1 ordu ez-presentziazkoa).  ELKARRIZKETARAKO EGUNKARIA (30 minutu ez-presentziazkoak).
<b>BALIABIDEAK</b>	Orain arte arazoaren ebazpenean landutako material guztia. (6 Jarduera)  Ikaslearen Koadernoko materiala, irakasleak Moodle plataforman zintzilikatutakoa. (6 Jarduera.)
<b>ENTREGAGAIK</b>	Arazoaren ebazpenaren azken paper-zorroa. (6 Jarduera)

## 5) JARDUEREN KRONOGRAMA

Jarraian, jardueren taula eta bere inplementazio-data agertuko da.

### 2. Koadroa. Jardueren taula eta bere inplementazio-data

ASTEAK	JARDUERA PRAKTIKOA (2 ORDU)	EZ-PRESENTZIAZKO ORDUAK PRAKTIKAK	ASTEAK	JARDUERA PRAKTIKOA (2 ORDU)	EZ-PRESENTZIAZKO ORDUAK PRAKTIKAK
<u>1 Astea</u> 2013-01-28 2013-02-01	- 1 <b>Jardueraren hasiera</b> - 1.1. Ataza - 1.2. Ataza - 1.3. Ataza	- 1.3. Ataza. (2H)	<u>9 Astea</u> 2013-03-25 2013-03-28	- -4 <b>Jardueraren hasiera</b> -4.1. Ataza (hasiera)	
<u>2 Astea</u> 2013-02-04 2013-02-08	- 1.4. Ataza - 1 <b>Jardueraren amaiera</b>	- 1.4. Ataza (2H)	<u>10 Astea</u> 2013-04-08 2013-04-12	-4.1. Ataza. (amaiera)	
<u>3 Astea</u> 2013-02-11 2013-02-15	- 2 <b>Jardueraren hasiera</b> - 2.1. Ataza (hasiera)		<u>1 Astea</u> 2013-04-15 2013-04-19	- 4.2. Ataza - -4 <b>Jardueraren amaiera</b>	
<u>4 Astea</u> 2013-02-18 2013-02-22	- 2.1. Ataza (amaiera) - 2.2. Ataza.		<u>12 Astea</u> 2013-04-22 2013-04-26	- -5 <b>Jardueraren hasiera</b> -5.1. Ataza (hasiera)	-5.1. Ataza (2H)
<u>5 Astea</u> 2013-02-25 2013-03-01	- 2.3. Ataza (hasiera)		<u>13 Astea</u> 2013-04-29 2013-05-03	-5.1. Ataza (amaiera) -5.2. Ataza - -5 <b>Jardueraren amaiera</b>	-5.2. Ataza (1H)
<u>6 Astea</u> 2013-03-04 2013-03-08	- 2.3. Ataza (amaiera)		<u>14 Astea</u> 2013-05-06 2013-05-10	- -6 <b>Jardueraren hasiera</b> -6 Ataza (hasiera)	-6 Ataza (1H)
<u>7 Astea</u> 2013-03-11 2013-03-15	- 2.4. Ataza - 2 <b>Jardueraren amaiera</b>		<u>15 Astea</u> 2013-05-13 2013-05-17	- 6 Ataza (amaiera) -- 6 <b>Jardueraren amaiera</b>	
<u>8 Astea</u> 2013-03-18 2013-03-22	- 3 <b>Jarduera</b> - 3 Ataza		<u>Elkarrizketarako egunkaria</u>		Ez-presentziatzko 3 ordu guztira, ez-presentziatzko 30 minututan banatuta sei jardueretako bakoitza amaitzean.

## 6) LANAREN GUTXI GORABEHERAKO KRONOGRAMA

Segidan, lanaren kronograma orientagarria agertuko da:

### 3. Koadroa. Lanaren kronograma orientagarria

<b>LANAREN KRONOGRAMA ORIENTAGARRIA</b>					
<b>Jarduerak</b>	<b>Astea</b>	<b>Tutoretza</b>	<b>Asteko orduak</b>		<b>Entregatu beharreko lana</b>
			<b>P</b>	<b>EP</b>	
<u>1 JARDUERA</u>	1.astea		2h	2h (1.3. A)	
<b>1.1. A.AOIren aurkezpena.</b>	Urt. 28 - Ots. 1				
<b>1.2. A.Arazoaren aurkezpena.</b>					
<b>1.3.A. Planteatutako arazoa definitu eta lan-hipotesiak ezarri.</b>					
<b>1.4.A.Ezagutzen dugu gure ingurune soziala?</b>	2. astea Ots. 4 - 8	1. bilera	2h	2h (1.4. A 30 m (egunkaria)	
<u>2 JARDUERA</u>	3. astea		2h		1 Jarduerako Paper-zorroa
<b>2.1. A. (hasiera) Arazoaren zatiak identifikatu: zer gertatu da, nortzuk daude inplikaturik, nolakoa da eragindako pertsonen inplikazio-maila.</b>	Ots. 11 - 15				
<b>2.1. A. (amaiera)</b>	4. astea		2h		
<b>2.2.A. Nola inplikatzen gara haurren eskubideen defentsan?</b>	Ots. 18 - 22				
<b>2.3.A. (hasiera) Unibertsalak dira haurren eskubideak? Haurren eskubideak beste kultura batzuetatik ikusita.</b>	5. astea Ots. 25 - Mar. 1		2h		

<b>2.3. A. (amaiera)</b>	6. astea Mar. 4 - 8		2h		
<b>2.4.A. Arazo egituratzailearen aktore desberdinak identifikatu.</b>	7. astea Mar. 11-15	2. bilera	2h	30 m (egunkaria)	
<u>3 JARDUERA</u> <b>3.A. Nola sortu da arazoa? Zein neurri hartu dira alde edo aurka?</b>	8. astea Mar. 18 - 22		2h	30 m (egunkaria)	2 Jarduerako Paper-zorroa
<u>4 JARDUERA</u> <b>4.1. A. (hasiera) Zein dira kultura aniztasunak geletan sortutako gatazkekiko erreakzioak?</b>	9. astea Mar. 25 - 28		2h		3 Jarduerako Paper-zorroa
<b>4.1. A. (amaiera)</b>	10. astea Apir. 8 - 12		2h		
<b>4.2.A. Nola erreakzionatzen dute inplikatuak Yasminak txadorra gelara eramateak planteatutako arazoaren aurrean?</b>	11. astea Apir. 15 - 19		2h	30 m (egunkaria)	
<u>5 JARDUERA</u> <b>5.1.A. (hasiera) Ikastetxearen txostena egin Yasminaren kasuaren inguruan.</b>	12. astea Apir. 22 - 26		2h	2h (5.1.A)	4 Jarduerako Paper-zorroa
<b>5.1. A. (amaiera)</b>	13. astea Apir. 29 - Mai. 3	3. bilera	2h	1h (5.2. A)  30 m (egunkaria)	
<u>6 JARDUERA</u> <b>6. A. (hasiera) Zer ikasi dugu?</b>	14. astea Mai. 6 - 5		2h	1 h ( 6 )	5 Jarduerako Paper-zorroa
<b>6. A. (amaiera)</b>	15. astea Mai. 13 - 17		3h	30 m (egunkaria)	6 Jarduerako Paper-zorroa maiatzaren 20-25eko astean entregatuko da.



## 7) EBALUAZIOA

Gizarte Zientziak eta beren Didaktika I irakasgaiaren ebaluaziorako, zera izango da kontuan:

1.- Irakasgaiko amaierako azterketaren emaitza. Azterketa proba teoriko-praktiko globala izango da programaren edukiei buruz. Azterketa honen balioa irakasgaiaren %60 da.

2.- Arazoen ebazpenean oinarritutako (AOI) lanaren balorazio globala. Lan hau irakasgaiko praktika guztien gain inplementatuko da. Lan honen balioa irakasgaiaren %40 da.

Irakasgaiko **praktiken ebaluazioa** metodologia aktiboen **AOI ereduaren arabera eginda** honetan zentratuko da: talde-lana, entregagaiak edo paper-zorroak, elkarrizketarako egunkaria, auto-ebaluazioa eta baita bakarkako eta taldekako tutoretzak ere. Azkenik, ikasleak prozesuaren amaieran AOIri buruz egingo duen inkesta ebaluagarria ere gehituko da.

Beraz, praktiken ebaluazioak bi zati ditu:

1.- Ikaslearen ikaskuntzaren ebaluazioa eta hauek ditu barne:

a.- Irakasle tutorearen ebaluazioa: prozesua eta lan idatzia ebaluatuko ditu.

b.- Ikasleen ebaluazioa: auto-ebaluazioa, ebaluazio-kidetza eta taldearen ebaluazioa

2.- Ikaslearen iritziaren ebaluazioa.

Ikaslearen ikaskuntzaren ebaluazioari dagokionez, honela baloratuko da: amaierako notaren %30 ikasleen ebaluazioari dagokio eta gainerako %70 irakasleari.


Jarduera bakoitzeko **entregagaiak edo paper-zorroak** irakasleari entregatuko zaizkio bukatu ahala eta lanaren kronograman adierazitako datetan. Guztira sei jarduera dira eta ikasleek paper-zorro bat entregatuko diote irakasleari landutako jarduera bakoitzeko. Guztira sei paper-zorro edo entregagai dira AOI lanean zehar egin beharrekoak. Jarduera eta ataza bakoitzean adieraziko da hauetako bakoitzari paper-zorrorako zein eduki dagokion.

Praktiken **amaierako nota** ikasleek entregatu beharreko sei paper-zorroen balio osoaren batez bestekoa gehi tutoretzei dagokien balioaren emaitza da. Tutoretzen balioa %4 da AOIren balio osoaren gain eta praktiken balio osoa aipatutako balio

osoaren %36 da. Beraz, paper-zorro bakoitzari dagokion balioa %6 da eta bertan sartutako atazen balioa guztien batez bestekoaren emaitza izango da.

#### 4. Koadroa. Irakasgaietan egin beharreko jardueren balorazioa portzentajeetan

Jarduera-mota	Bere balorazioaren portzentajea irakasgai osoarekiko	Espezifikazioak
<b>Irakasgaiko amaierako azterketaren balioa</b>	%60	
<b>AOIren ebazpenerako lanaren balioa guztira</b>	%40	Amaierako notaren %30 ikasleen ebaluazioari dagokio.  Amaierako notaren %70 irakaslearen ebaluazioari dagokio.
<b>Tutoretza formatiboen balioa</b>	%4	
<b>AOIren ebazpenerako laneko jardueren balioa</b>	%36	
<b>Jarduera bakoitzaren balioa</b>	%6	Ataza bakoitzaren balioa izango da, jarduera bakoitzaren balioa zati jarduera horretako atazen kopurua.



Kontuan izan behar da Herritartasunerako Heziketako gaitasunen ebaluazioak prozesu bat suposatzen duela. Prozesu honetan marko teorikoa inskribatzeaz gain, kontuan izan behar dira planteatzen diren galderekiko aurretiko jarrera, prozedura- eta jarrera-alderdien ikaskuntza-prozesua bera, eta baita ikaskuntza honen emaitza bera ere. **Tutoretza bidezko ebaluazio formatiboak** jarduteko esparrua eskainiko digu prozesu hau ebaluatzeko. Beraz, tutoretza bidezko ebaluazio formatiboa talde bakoitzeko hiru bilerarekin egingo da, bat hasieran bigarren astean, arazo egituratzailea aurkeztu ondoren. Tutoretza honen bidez, talde bakoitzaren abiapuntua ezarri ahal izango dugu lanari ekiteko, ba ote den egiturazko arazorik taldearen osaketan eta gaiari buruzko aurretiko ezagutzan. Bigarrena, praktikak hasi eta hilabete eta erdira egingo da taldearen lan-bilakaera ikusteko, irakasleak aztertzeke zein jarduera egin dituzten eta lanarekiko zer jarrera duten. Era berean, ikasleek euren lanari buruzko ikuspegia agertuko dute, zer zailtasun topatu dituzten, orain arte zer ikasi duten... Hirugarren talde-tutoretza praktikak bukatu baino bi aste lehenago egingo da. Saio honetan, irakasleak ikuspegi orokorra agertuko du talde-lanaz eta zenbait ildo proposatuko ditu taldearen ibilbideaz eta elementuak paper-zorro orokorra aurkezteko. Azken tutoretza honetan, ikasleek taldearen martxaz hausnartuko dute, praktiketako amaierako paper-zorria osatzeko zer zailtasun ikusi dituzten adieraziko dute eta iritzi pertsonala eman AOIren implementazioan zehar ikasi dutenaz (edukiak, prozedurak, jarrerak).

Azkenik, esan behar da tutoretza-saioetara joatea nahitaezkoa dela eta bere balioa AOIren balio osoaren %4 dela.

## 5. Koadroa. Tutoretza formatiboen eta hauen implementazio-daten taula

TUTORETZA	IRAKASLEAREN HELBURUAK	IKASLEEN EKINTZAK
<b>1. BILERA (2. ASTEA)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ikasleen aurretiko ezagutzak finkatu.</li> <li>- Egiturazko arazoak zehaztu.</li> <li>- Ikasleen gaiari buruzko aurretiko ezagutzak zehaztu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zailtzak adierazi lanaren hasierako planteamenduz eta taldearen antolaketaz</li> <li>- Gaiari buruzko hasierako ezagutza azalduko dute.</li> </ul>
<b>2. BILERA (7. ASTEA)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hausnarketa taldearen martxaz, egin dituzten jardueraz eta lanarekiko jarreraz.</li> <li>- Ikasleek ikaskuntza-helburuetan zer aurrerapen egin dituzten zehaztu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beren lanaren ikuspegia agertu, zer zailtasun topatu dituzten...</li> <li>- Ikaskuntza-helburuetan zer aurrerapen egiten ari diren adieraziko dute.</li> </ul>

<p><b>3. BILERA</b></p> <p><b>(13. ASTEA)</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuspegi orokorra aurkeztuko da talde-lanaz.</li> <li>- Zenbait gogoeta proposatuko dira taldearen martxaz eta elementuak amaierako paper-zorroan aurkezteko.</li> <li>- Ikasleek ikaskuntza-helburuetan zer garapen-maila lortu duten zehaztu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde-martxaren bilketa, zer zailtasun dituzten amaierako paper-zorroa osatzeko.</li> <li>-Esango dute zer pertzepzio duten ikaskuntza-helburuak lortu ote dituzten edo ez.</li> </ul>
---	---	---

Gainera, kontuan izan behar da ebaluazioa ez dela prozesu lineala, baizik eta AOIren lan-etapa desberdinetara egokitzen dela. Honela, hasierako ebaluazioa egingo dugu, bigarrena formatiboa eta hirugarrena sumatiboa.

### **1.- Hasierako ebaluazioa:**

Hasierako ebaluazio edo ebaluazio diagnostiko honetan, AOIn landuko den gaiaren aurre-kontzeptuak ebaluatuko dira. Ebaluazio honetan dago **1 Jarduera; 1.1 Atazak eta 1.2. Atazak** aurretiko informazioa ematea beste funtziorik ez dute, **1.3. Ataza** eta **1.4 Ataza** soilik ebaluatuko dira. Azken bi ataza hauetan, arazo egituratzailearen definizioa eta arazo hau gertatzen den ingurune sozialaren deskribapena landuko dira. Beraz, gai hauek ikaslea planteatutako arazoaren azterketan sartuko dute ikuspegi kontzeptualetik eta metodologikotik.

### **2.- Ebaluazio formatiboa:**

Ebaluazio formatiboan sartuko diren jarduera batzuek ikasleen lanaren jarraipena eskatuko dute, hau da, **tutoretza formatiboa**, eta beste batzuek ikasleek egingo dituzte eta planteatutako arazoaren tratamendura zuzenduak daude, ebatzi aurretik. Ondorioz, ebaluazio formatibo honetan **2 Jarduera, 3 Jarduera** eta **4 Jarduerari** dagozkion paper-zorroak sartuko dira.

### **3.- Ebaluazio sumatiboa:**

Ebaluazio sumatibo edo bildumazkoaren barnean arazoaren ebazpena landuko da eta lan honek ikuspegi formatibotik ikasleentzat ekarri dituen ondorioak. Gainera, ebaluazio honen barnean ikasleek egin beharreko autoebaluazioa eta koebaluazioa ere egongo dira. Beraz, ebaluazio honetan sartuko da: **5 Jarduera**, ikasleek txosten bat aurkeztuko dute arazoaren ebazpenarekin; **6 Jarduera**, ikasleek gogoeta egingo dute ikasi dutenaren inguruan; **Elkarrizketarako egunkaria**, bertan, ikasleek lan-prozesu osoari buruz hausnartu dute; eta, azkenik, ikasleen autoebaluazioa eta koebaluazioa.

Irakasleak egingo duen lan idatziaren **ebaluaziorako adierazleak** hauek dira:

- Adierazitako atal guztiak behar bezala sartu izana idatzizko txostenean.
- Taldeak jarraitutako prozesua arazoetan oinarritutako ikaskuntzara egokitu izana.
- Ordena, koherentzia eta logika ideien aurkezpenean.
- Zentzu kritikoa, sormena eta heldutasuna.
- Moduluko irakasgai desberdinetako ekarpenen zehaztapena.
- Informazio-iturri desberdinen erabilpena.
- Zuzentasun linguistikoa.
- Puntualtasuna lana entregatzean.

Taldeak egingo duen lanaren **autoebaluaziorako adierazleak** hauek dira:

1.- *Bere ikaskuntzaz:*

- Erabilitako informaziotik, kontzeptu-eduki egokiak atera ditu argi eta zehatz.
- Gogoeta argudiatuak egin ditu egoera bakoitzean agertutako eztabaidetan, kontsultatutako datuak kontuan hartuta.

2.- *Taldean izandako parte-hartzeaz:*

- Talde-bileretara joan izana
- Talde-eztabaidetako inplikazioa.
- Taldean egokitutako zereginak bere gain hartzen eta betetzen izandako ardura.

Laburbilduz, AOI metodologia jarraituz burututako irakasgaik praktikak **ebaluatzeko aintzat hartuko diren elementu adierazleak** honako hauek dira:

## 6. Koadroa. Ebaluazioaren elementu adierazleak

PROZEDURAK	ELEMENTU ADIERAZLEAK
<b>Jarrera</b>	<p>Heziketa-prozesuko eragile guztiei dagokienez (irakaslea, ikasleak, taldea, auto-irudia)</p> <p>Materiari, atazei, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari dagokionez.</p> <p>Garapen pertsonalari dagokionez: dedikazioa, parte-hartzea, aurrerapena, zentzu kritikoa, gaitasunen lorpena, auto-exijentzia.</p>
<b>Atazak betetzea</b>	<p>Puntueltasuna, dedikazioa, zorrozatasuna, sakontasuna, ikerkuntza, analisia, zehaztapena, exekuzioa, proiektzioa, orijinaltasuna, koherentzia, zuzentasun eta egokitzapen linguistikoa.</p>
<b>Atazen antolaketa</b>	<p>Erantzukizuna eta erantzukizun-kidetza.</p>
<b>Lan-prozesua</b>	<p>Kolaborazioa eta parte-hartze aktiboa, informazioa bilatu eta kudeatu, hipotesiak formulatu, irtenbideak bilatu, ezagutza eraiki, gogoeta, analisi kritikoa, justifikazioa.</p>
<b>Lanaren emaitza</b>	<p>Informazioa bilatzen, sailkatzen eta aztertzen menperatzea.</p> <p>Garapen koherentea, zuzentasuna eta egokitzapena terminoak erabiltzean.</p>

Ikasleen **autoebaluaziorako, ikaskideek egingo duten ebaluaziorako** eta **taldearen ebaluaziorako** segidako formularioak emango zaizkie ikasleei. Formulario hauek guztiak irakasgaiko amaierako paper-zorroan sartuko dira. Lehendabizi, taldekide bakoitzak bere ebaluazioa egingo du segidako formularioa erabiliz:

### 7. Koadroa. Autoebaluaziorako formularioa ikaslearentzat

Izena:	
Taldearen izena:	
Baloratu lanean izan duzun jarduera, eskala hau erabilita: <b>5=Beti 4=Sarritan 3=Batuetan 2=Gutxitan 1=Inoiz ez</b>	
Prestatuta nengoen taldeari ekarpenak egiteko	
Atazan jarduten nuen	
Gainerakoei entzuten nien	
Elkarrizketetan parte hartzen nuen	
Besteak parte hartzera animatzen nituen	
Oro har, nire talde-jarduera honela baloratu beharko litzatekeela uste dut:	

Bere autoebaluazioaz gain, taldekide bakoitza gainerako taldekideek ebaluatuko dute:

### 8. Koadroa. Ebaluazio-formularioa taldekideen esku

	Hobetu egin behar du = 1	Nahikoa = 2	Bikain = 3
<b>Honako taldekideak...</b>			
Prestatzen du			
Entzuten du			
Ekarpenak egiten ditu			
Besteak errespetatzen ditu			
<b>Segidako gaitasunak erakusten ditu...</b>			

Pentsamolde kritikoa			
Arazoen ebazpena			
Komunikazioa			
Erabakia			
<b>Azpitalak</b>			
<b>Totala</b>			

Ikasleek egin beharreko ebaluazioa errazteko, honako **ebaluazio-irizpide hauek** ere emango zaizkie:

### 9. Koadroa. Taldekideek egin beharreko ebaluaziorako irizpideak

<b>Irizpide positiboak</b>	<b>Irizpide negatiboak</b>
<p>Erregularitasunez joaten da talde-bileretara</p> <p>Bileretara joaten da, eta ez du alde egiten bukatu arte, denborazko plangintzaren arabera lan egiten du, aktibo eta erne egoten da, eta malgua da bileren tenporizazioan</p>	<p>Zenbait bileretara joateari utzi dio, sarritan berandu iristen da, bukatu baino lehen alde egiten du, gaiz kanpoko pare-hartzeak egiten ditu, eta ez du jarrera serioa bileretan</p>
<p>Ideiak botatzen ditu</p> <p>Bileren aurretik pentsatzen du gaietan, taldeak onartzen dituen ideia praktikoak ematen ditu, gainerako kideen iradokizunetan oinarritzen da</p>	<p>Bileretara gaia prestatu gabe joaten da, ez du ideia baliotsurik ematen, eta besteenak baztertzeko joera du, horien gainean eraiki ordez</p>
<p>Atazarako materiala bilatu, aztertu eta prestatzen du</p> <p>Egingo zuela esan zuena egiten du, materiala ekartzen du, ikerkuntzalanaren bidezko zatia egiten du eta materiala aztertzen eta ebaluatzen laguntzen du</p>	<p>Ez du ikertzen. Ez du egiten hitz emandakoa. Ez da atazan sartu eta informazioa besteek bila dezaten utzi du</p>
<p>Taldeari behar bezala funtzionatzen laguntzen dio</p> <p>Pertsona arteko diferentziak taldetik kanpo uzten ditu, badu interesa taldearen funtzionamendua aztertzean eta gatazkak lantzean, rol desberdinak</p>	<p>Ez du ekimenik, zer egin behar duen esan zain egoten da. Beti rol bera hartzen du, zirkunstantziak direnak direla, gatazken motiboa da, eta ez dago prestatuta taldearen funtzionamendua gainbegiratzeko</p>



<p>hartzten ditu beharren arabera, taldea bide zuzenetik joan dadin laguntzen du, jarrera ona eta malgutasuna du, baina atazan zentratuta</p>	
<p>Taldeko beste kideak animatu eta babestu egiten ditu.</p> <p>Beti prest dago besteei entzuteko, parte-hartzera animatzen du, elkarlan-giroari laguntzen dio, taldekideei eragin diezaiekeenarekiko sentibera, behar bereziak dituzten taldekideei laguntzen die</p>	<p>Ataza bukatzeak beste ezerk ez du kezkatzen, bere iritzia inposatzen du eta ez dio kasurik egiten besteenari. Besteen beharrekiko sorgor da eta ez du laguntzen ikaskuntza-prozesua.</p>
<p><b>Ekarpen baliotsua du amaierako produktuan.</b></p> <p>Badu borondatea gauza berriekin saiatzeko. Ekarpen garrantzitsua egin du, bere ekimenak ditu, fidagarria da eta kalitatezko lana egin du</p>	<p>Ez du zereginik bere gain hartu nahi, ez du erantzukizunik hartzten, ez da fidagarria (taldeak beraren lana egiaztatzen joan behar izan du), eta bere ekarpena mugatua izan da eta kalitate txarrekoa.</p>

**Taldearen ebaluazioari dagokionez,** bi formulario desberdinen bidez egingo da: bat ikasle bakoitzak beteko du bakarka eta bestea taldekide guztiek elkarrekin.

### 10. Koadroa. Talde-ebaluazioaren formulazioa ikasle bakoitzak bakarka egiteko

1.- Oro har, nolako eraginkortasunez egin du lan taldeak ataza honetan?
Gutxiegi Nahikoa Ongi Bikain
2.- Lau taldekideetatik, zenbatek hartu dute parte aktiboki denborarik gehienez?
Inork ez Batek Bik Hiruk Lauk
3.- Lau taldekideetatik, zenbat zeuden guztiz prestatuta jarduerarako?
Inor ez Bat Bi Hiru Lau
4.- Jarri taldean ikasitako zerbaiten adibide zehatza, bakarrik jardunda ikasiko ez zenuena.

5.- Jarri beste taldekideek zuregandik ikasitako zerbaiten adibide zehatza, seguru aski bestela ikasiko ez zutena.

6.- Adierazi taldeak jarduera hobetze aldera egin lezakeen aldaketa bat.

### 11. Koadroa. Talde-ebaluazioaren formularioa taldekide guztien artean egiteko

**Talde-zenbakia:**

**Bertan dira kide guztiak?:**

#### Galderak

*Komentatu baieztapen hauek:*

1. Taldeak ordutegi eta leku finkoak ditu asteroko bileretarako (esan zein diren baieztatzeko).
2. Taldekide guztiak joaten dira bileretara eta ordutegia errespetatzen dute (pertsonalizatu gabe).

3. Taldekide guztiek errespetua erakusten dute besteekiko, eta arreta eskaintzen diete hitz egitean edo iritzia agertzean.
4. Jarduera bakoitzean eztabaidatu eta adostu egiten da jarraitu beharreko lan-plana, eta bada moderatzaile edo antolatzaile lana egiten duen kide bat.
5. Jarduera bakoitzean elkarrekin eztabaidatzen dira topatutako zailtasunak eta ariketa bakoitzaren edo aztergai bakoitzaren planteamendua.
6. Baterako jardueretan bukatu ezin diren lanen banaketa berdintasunez egiten da eta adostasunez.
7. Kide bakoitzak behar adina esplikatu die gainerakoei euren lan independentearen emaitza.
8. Kide guztiek aktiboki eta gogo onez hartzen dute parte talde-jardueretan.

*Erantzun galdera hauei:*

9. Aipatu zuen taldearen elkarlaneko jardueraren hiru alderdi positibo.

10. Aipatu zuen elkarlaneko jardueraren bi alderdi hobetu daitezkeenak.

11. Baloratu, 0-10 eskalan, taldearen funtzionamendua (bakarkako iritzi anonimoak):

a)                      b)                      c)                      d)

12. Baloratu, 0-10 eskalan, zeuen ekarpena talde-funtzionamenduari (bakarkako iritzi anonimoak, 11koaren ordena berean):

a)                      b)                      c)                      d)

13. Izendatu talde-funtzionamendua hobetzeko egingo dituzuen hiru ekintza:

Iruzkin gehigarriak (formatu librea).

## 8) BIBLIOGRAFIA

Arartekoa (Gorka Azkarate, Lourdes Errasti, Maite Mena) (2000); *Materiales para la educación en Derechos Humanos. Ejercicios prácticos para diferentes áreas y líneas transversales. Educación Secundaria: ESO y Bachillerato. Gaztelazniazko bertsioa*. Arartekoa, Vitoria-Gasteiz.

Macias, O. (2011): "El proceso de evaluación en la educación para la ciudadanía ante los nuevos retos sociales. El caso del País Vasco." in *La evaluación en el proceso de enseñanza y aprendizaje de las ciencias sociales*. Pedro Miralles Martínez, Sebastian Molina Puche, Antoni Santiesteban Fernandez (edk.)" Asociación de Profesores Universitarios de Didáctica de las Ciencias Sociales. Murtzia, 251-258 orr.



Macias, O. (2013). Errespetatzen ditugu haurren eskubideak?– IKD baliabideak 6 - <http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/ik/macias-6-2013-ik.pdf>



**Aitortu - Ez merkataritzarako -Partekatu baimen beraren arabera (by-nc-sa):**Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.